

1. GAIA: SARRERA

Erabaki ezazu baieztapen bakoitza egiazkoa ala faltsua den:

- 1) Makinak diseinatzeko prozesua iterazio-prozesua da.
- 2) Diseinu mekanikoaren prozesuan ez da ohikoa zenbait analisi-prozedura konbinatzea (metodo tradizionalak, zenbakizkoak eta esperimentalak), hau da, baztertzailak dira.
- 3) Metodo tradizionalak zehaztasun handia ematen dute normalean, eta aplikazio-maila mugagabea dute.
- 4) Gaur egun gehien erabiltzen den analisi mekanikoko zenbakizko metodoa elementu finituen metodoa da.
- 5) Saiakuntza esperimentalek emaitza ez hain zehatzak eta, aldi berean, garestiagoak ematen dituzte; horregatik, pieza diseinatzeko prozesuan benetan beharrezkoak direnean baino ez dira erabili behar.
- 6) Auto baten inpaktuaren azterketa egin nahi bada, ohiko metodoak ez dira zehatzak.
- 7) Nekea kalkulatzeko metodo tradizionalak saiakuntza esperimentalen osagarri onak dira, zenbait faktoreren eragina ezagutzeko eta saiakuntza kopurua minimizatzen duen hasierako diseinu on batetik abiatuta.
- 8) Segurtasun-koefizienteak “fusible” gisa jarduten du diseinu-prozesuko zenbait ziurgabetasun faktorek duten eraginari aurrea egiteko.
- 9) Diseinu mekanikoan, material hauskorretan segurtasun-koefiziente handiagoak erabiltzea gomendatzen da, harikorretan baino, eskuarki bikoitza.
- 10) CS-ari buruzko legerik ez badago, irizpide egokia da enpresaren esperientzian oinarritzea, erabilitako balioak, segur aski, enpresaren lan-metodologia partikularrera hobekien egokitzen direnak izango baitira.